# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 285

261/2006 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duena.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea herri-administrazio guztiei eta haien jardun-eremu guztiei dagokien zeharkako helburua da. Horregatik, arlo horretan erakundeen jarduna eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da administrazioek neurriak koordinaturik abiaraz ditzatela, bakoitzak bere eskumeneko eremuan, bai eta neurriok koherenteak eta elkarren osagarri izatea ere. Horretarako, ezinbestekoa da aurretik administrazio bakoitzaren barruan koordinazioa ezartzea.

Ildo horretan, eta Eusko Jaurlaritzako sailak eta haiei atxikitako edo haien menpeko erakunde publikoak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen gehiago inplikatzea lortzeko eta arlo horretako jardunak hobetu eta koordinatzeko, apirilaren 6ko 97/1993 Dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko emakumezkoentzako ekintza positiborako planaren gauzatzea koordinatzeko Sailarteko Batzordea eratu zen. Ordutik hona batzorde hori da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta sailek elkarrekin hitz egiteko eta koordinatzeko erabiltzen duten gunea.

Batzorde hori abiatu zenetik, Emakunderen eta sailen arteko elkarrizketa eta koordinazioa nabarmen hobetu dira. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak Sailarteko Batzorde horri buruzko zenbait erabaki hartu ditu lan-metodologian sakontzeko eta, horrela, gizonen eta emakumeen berdintasunerako ekintza positiboak diseinatzen eta betetzen aurrera egiteko eta sailen programa eta planetan generoaren ikuspuntua zeharka ezartzeko. Halaber, sail bakoitzak pertsonal teknikoa izenda zezala erabaki zen, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumezkoentzako ekintza positiboko planaren koordinazio- eta jarraipen-lanak sendotzen laguntzeko.

Erabaki horiek gauzatzeko eta Batzordearen jarduna Eusko Jaurlaritzaren orduko egiturara moldatzeko, ekainaren 15eko 251/1999 Dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumezkoentzako Ekin-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 285

DECRETO 261/2006 de 26 de diciembre, de regulación de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La consecución real de la igualdad de mujeres y hombres constituye un objetivo transversal que afecta a todas las administraciones públicas y a todos sus ámbitos de intervención y para que la acción institucional en esta materia sea realmente efectiva es fundamental que las medidas que cada administración lleve a cabo en su ámbito de actuación sean coordinadas, coherentes y complementarias con el del resto de las administraciones. Para ello y como paso previo, es necesario que exista también una coordinación interna dentro de cada administración.

En este sentido, y con el fin de lograr una mayor implicación de los Departamentos del Gobierno y de los organismos autónomos y entes públicos vinculados o dependientes de ellos en la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, así como la mejora y coordinación de las actuaciones en esta materia, por Decreto 97/1993, de 6 de abril, se creó la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que viene funcionando desde entonces como marco de coordinación e interlocución entre Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y los distintos Departamentos.

La puesta en funcionamiento de esta Comisión ha permitido una notable mejora en la interlocución y coordinación entre el Instituto y los Departamentos. A lo largo de su trayectoria la Comisión Delegada para Asuntos Económicos del Gobierno Vasco ha ido adoptando diversos Acuerdos en relación con esta Comisión a fin de profundizar en una metodología de trabajo que permita avanzar en el diseño y ejecución de acciones positivas para alcanzar la igualdad de mujeres y hombres e incorporar de modo transversal en los programas y planes de los Departamentos la perspectiva de género. Igualmente se acordó designar personal técnico por cada Departamento que reforzara las labores de coordinación y seguimiento en la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Con el fin de incorporar estos Acuerdos y adecuar el funcionamiento de la Comisión a la estructura que entonces tenía el Gobierno Vasco, se procedió a la regulación de la Comisión Interdepartamental para la coor-

tza Positiborako Planaren gauzatzea koordinatzeko Sailarteko Batzordea arautu zen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 13. artikuluan, ezarri duenez, oso beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren berdintasunaren arloko jarduketak koordinatuko dituen kide anitzeko organo bat izatea. Organo horri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea izena eman dio.

Legean ezarritakoa garatzeko, dekretu honen bidez aipatu batzordearen osaera, eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendu-araubidea arautu dira. Beste alde batetik, Batzordearen barruan Sailarteko Talde Teknikoa sortu da, laguntza eta aholku teknikoak emateko; horretarako, azterlan, txosten eta proposamenak egingo dizkio Batzordeari. Gainera, aurreikusita dago Sailarteko Batzordeak lantalde teknikoak sortu ahal izango dituela gai batzuk berariaz edo arlo jakin baten ikuspuntutik aztertzeko.

Ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

Dekretu honen xedea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzea da. Batzordea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago, eta beraren helburua Eusko Jaurlaritzak —administrazio orokorra zein administrazio instituzionala, biak barne— emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten dituen jarduketak koordinatzea da. Dekretu honen xedea da, halaber, Batzordearen barruan Erakundearteko Talde Teknikoa sortzea.

*2. artikulua.–* Sailarteko Batzordearen eginkizunak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak eginkizun hauek ditu:

a) Eusko Jaurlaritzako sailen arteko eztabaida-organoa izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan; horrez gainera, sailen arteko sinergiak sortaraztea helburu duten esperientziak eta proposamenak elkarrekin konpartitzeko espazioa ere izango da, betiere berdintasunerako politiken kudeaketa eta emaitzak hobetzeko asmoarekin.

b) Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi guztien hasieran onetsi behar duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Orokorraren prestakuntzan parte hartzea, 4/2005 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

c) 4/2005 Legearen 15.2 artikuluan aurreikusitako plan eta programak burutzeko irizpideak, nahiz plan

dinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud del Decreto 251/1999, de 15 de junio.

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres refuerza en su artículo 13 la necesidad de la existencia un órgano colegiado de coordinación de las actuaciones del Gobierno Vasco en materia de igualdad, al que denomina Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En desarrollo de lo establecido en la Ley, este Decreto regula su composición, funciones, organización y régimen de funcionamiento. Por otra parte, procede a crear en su seno al Grupo Técnico Interdepartamental con la finalidad de prestarle apoyo y asesoramiento técnico, mediante la realización de estudios, informes y propuestas. Asimismo, se prevé que la Comisión Interdepartamental pueda crear Grupos técnicos de trabajo al objeto de tratar cuestiones de una manera más específica o con un carácter más sectorial.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 26 de diciembre de 2006,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres, adscrita a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, como órgano de coordinación de las actuaciones del Gobierno Vasco, incluida tanto la Administración General como la Institucional, en materia de igualdad de mujeres y hombres, así como la creación y regulación en su seno del Grupo Técnico Interdepartamental.

*Artículo 2.–* Funciones de la Comisión Interdepartamental.

Corresponden a la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las siguientes funciones:

a) Servir de órgano de interlocución en materia de igualdad de mujeres y hombres entre los Departamentos del Gobierno Vasco, así como de espacio de puesta en común de experiencias y de propuestas al objeto de generar sinergias entre ellos, de forma que se optimice la gestión y los resultados de las políticas gubernamentales de igualdad.

b) Participar en el proceso de elaboración del Plan general para la igualdad de mujeres y hombres que ha de aprobar el Gobierno Vasco al inicio de cada legislatura, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15.1 de la Ley 4/2005.

c) Establecer directrices para la elaboración de los planes y programas previstos en el artículo 15.2 de la

zein programa horien oinarrizko edukia ere, ezarriko ditu. Lortu beharreko helburuak, garatuko diren ekintza zehatzak, aurreikusitako burutze-egutegia, aurrekontu estimatua eta gauzatzeko ezarritako baliabideak jaso beharko ditu, ezinbestez, eduki horrek.

d) Sailek eta eurei atxikitako edo euren menpeko erakunde autonomiadunek edo herri-enteek, nahiz 4/2005 Legea nahiz Lege horren 15.1 eta 15.2 artikuluetan aurreikusitako berdintasunerako plan edo programak, zehatz-mehatz betetzea bultzatu eta koordinatuko du. Irizpideak ezarriz, ekintza-proposamenak landuz eta, dagokionean, sail desberdinen artean gerta daitezkeen eskuduntza-gatazkak ebazteko arauak proposatuz, kasu bakoitzean aplikazioaren ardura duten organoekin lankidetzan arituko da.

e) 4/2005 Legearen 15.2 artikuluan agindutakoaren arabera sailek osatu behar dituzten plan edo programen aurreikuspenei dagozkien burututako ekintzen eta erabilitako bitarteko zein baliabideen jarraipen-txostena urtero landuko du.

f) Sailarteko Talde Teknikoaren eta lantalde teknikoen jarduna zuzentzea eta gainbegiratzea, eta kide ez diren pertsonak Batzordearen eta lantaldeen bilkuretara bildu daitezen baimena ematea.

g) Ematen zaizkion gainerako eginkizun guztiak.

*3. artikulua.*– Sailarteko Batzordearen osaera.

1.– Hauexek dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeko kideak:

a) Batzordeburua: Lehendakaria. Lehendakaria kanpoan izanez gero, edo kargua bete gabe egonez gero, edo betetzen duena gaixotuz gero, haren ordezkoa batzordeburuordea izango da, eta hura izan ezean, hierarkia, antzinatasun edo adin handieneko kidea, hurrenkera horretan.

b) Batzordeburuordea: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

c) Batzordekideak:

– Lehendakaritzako idazkari nagusia.

– Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak ordezkari bat edukiko du Batzordean, hain zuzen ere, sailburuak izendatutako sailburuorde bat.

d) Idazkaria: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkaritza Nagusiaren titularra. Kanpoan edo gaixorik dagoenean, eta kargua bete gabe dagoenean, batzordekiderik gazteena ariko da idazkari-lanetan, 7.d) artikuluan aurreikusitako eginkizunetan izan ezik, eginkizun horiek Emakundeko idazkari nagusiari baitagozkio modu esklusiboan.

*4. artikulua.* – Batzordeburuaren eginkizunak.

Batzordeburuak eginkizun hauek ditu:

Ley 4/2005, así como su contenido básico que, en todo caso, habrá de incluir los objetivos a conseguir, las acciones concretas a desarrollar, el calendario de ejecución previsto, el presupuesto estimado y los recursos destinados a su cumplimiento.

d) Impulsar y coordinar la aplicación efectiva por parte de los Departamentos y de los organismos autónomos y entes públicos vinculados o dependientes de ellos de la Ley 4/2005 y de los planes o programas para la igualdad, previstos en el artículo 15. 1 y 15.2 de dicha Ley, colaborando con los órganos responsables en cada caso de su aplicación estableciendo directrices, elaborando propuestas de actuación y, en su caso, proponiendo criterios para dirimir posibles conflictos competenciales entre los diferentes Departamentos.

e) Elaborar un informe de seguimiento anual de las acciones realizadas y de los medios y recursos utilizados con relación a las previsiones de los planes o programas que los Departamentos han de elaborar según lo establecido en el artículo 15.2 de la Ley 4/2005.

f) Dirigir y supervisar el trabajo del Grupo Técnico Interdepartamental y de los Grupos técnicos de trabajo, así como autorizar la presencia de personas no miembros en las sesiones tanto de la propia Comisión como de los mencionados Grupos.

g) Cualesquiera otras que le sean encomendadas.

*Artículo 3.*– Composición de la Comisión Interdepartamental.

La Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres, estará integrada por las y los siguientes miembros:

a) Presidencia: la o el Lehendakari. En caso de ausencia, vacante o enfermedad se sustituirá por la persona que ocupe la Vicepresidencia y, en su defecto, por la o el miembro de mayor jerarquía, antigüedad o edad, por este orden.

b) Vicepresidencia: la Directora o Director de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

c) Vocales:

– La o el Secretario General de la Presidencia.

– Una persona, con rango de viceconsejera, designada por cada uno de los Consejeros y Consejeras de los Departamentos del Gobierno Vasco.

d) Secretaría: la persona titular de la Secretaria General del Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. En los supuestos de ausencia, vacante o enfermedad de ésta, realizará las funciones de Secretaría la o el vocal más joven, excepto las previstas en el artículo 7.d), las cuales corresponderán de forma exclusiva a la Secretaria o Secretario General de Emakunde.

*Artículo 4.*– Funciones de la Presidencia.

El Presidente o la Presidenta de la Comisión tiene las siguientes funciones:

a) Organoaren ordezkari nagusia izatea.

b) Batzordearen ohiko zein ezohiko bilkuretarako deia noiz egin erabakitzea, eta gai-zerrenda finkatzea, gainerako kideek behar hainbesteko aurrerapenarekin egindako eskaerak kontuan hartuta.

c) Batzordearen bilkuretan buru aritzea, eztabaidak zuzentzea eta, bilkurak bertan behera uztea horretarako arrazoiak daudenean.

d) Deliberazioak zuzentzea eta, oro har, behar diren ahalmenak erabiltzea bilkurak ondo burutzeko.

e) Berdinketak bere kalitatezko botoarekin ebaztea, erabakiak hartu ahal izateko.

f) Legeak betearaztea.

g) Organoko lehendakari den aldetik, dagozkion beste eginkizun guztiak betetzea.

*5. artikulua.*– Batzordeburuordearen eginkizunak.

Batzordeburuordeak eginkizun hauek ditu:

a) Batzordearen bilkuretara deitzea eta horietako gai-zerrenda finkatzea, batzordeburuaren proposamenez.

b) Batzordeburua kanpoan edo gaixorik dagoenean edota kargua bete gabe dagoenean, hura ordezkatzea.

c) Batzordeak hartutako erabakien aktei eta egiaztagiriei oniritzia ematea.

d) Batzordeburuak eskuordetzan emandako gainerako eginkizun guztiak.

*6. artikulua.*– Batzordekideen eginkizunak.

Batzordekideek eginkizun hauek dituzte:

a) Bilkuretara joatea eta eztabaidetan aritzea.

b) Bidezko deritzeten proposamenak aurkeztea Batzordeari.

c) Dekretu honetako 9.2. artikuluan ezarritako ekimena abiaraztea.

d) Botoa ematea, haren zentzua adierazita, eta gehiengoarekin bat ez datorren boto partikularra ematea.

e) Sailak Sailarteko Talde Teknikoan ordezkari izango duen teknikaria eta haren ordezkoa izendatzea.

f) Lantalde teknikoen eraketa proposatzea.

g) Kide ez diren pertsonak Sailarteko Batzordearen eta talde teknikoen bilkuretan izan daitezela proposatzea.

*7. artikulua.*– Idazkaritzaren eginkizunak.

Hauexek dira idazkariaren eginkizunak:

a) Bilkurak prestatzea.

b) Batzordearen bilkuretako aktak egitea.

a) Ostentar la representación del órgano.

b) Acordar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones de los demás miembros formuladas con la suficiente antelación.

c) Presidir las sesiones de la Comisión, moderar el desarrollo de los debates y suspenderlos por causas justificadas.

d) dirigir las deliberaciones y, en general, ejercitar las facultades precisas para el adecuado desarrollo de las sesiones.

e) Dirimir con su voto los empates, a efectos de adoptar acuerdos.

f) Asegurar el cumplimiento de las leyes.

g) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Presidente del órgano.

*Artículo 5.*– Funciones de la Vicepresidencia.

El Vicepresidente o la Vicepresidenta de la Comisión tiene las siguientes funciones:

a) Convocar las sesiones de la Comisión y fijar el orden del día, a propuesta de la Presidencia.

b) Sustituir al Presidente o Presidenta en caso de ausencia, vacante o enfermedad.

c) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos de la Comisión.

d) Cuantas les sean delegadas por la Presidencia.

*Artículo 6.*– Funciones de las personas Vocales.

Las y los vocales de la Comisión tienen las siguientes funciones:

a) Asistir a las sesiones y participar en los debates.

b) Presentar a la Comisión las propuestas que estimen oportunas.

c) Ejercer la iniciativa prevista en el artículo 9.2 del presente Decreto.

d) Emitir su voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular discrepante con el parecer de la mayoría.

e) Designar a la persona técnica que represente a su Departamento en el Grupo Técnico Interdepartamental y a su suplente.

f) Proponer la constitución de Grupos técnicos de trabajo.

g) Proponer la presencia de personas no miembros en la Comisión Interdepartamental y en sus Grupos técnicos.

*Artículo 7.*– Funciones de la Secretaría.

Corresponde al Secretario o Secretaria:

a) Preparar las sesiones.

b) Levantar las actas de las sesiones de la Comisión.

c) Batzordearen erabakien ziurtagiriak ematea.

d) 2. artikuluko c) eta e) idatz-zatietan aipatutako programa-agiria eta jarraipen-txostena prestatzea.

e) Batzordeak izapidetzen dituen espedienteak bultzatzea eta haien jarraipena egitea, eta Sailarteko Talde Teknikoak eta lantalde teknikoek esku artean dituzten espedienteen egoerari buruzko informazioa biltzea.

f) Batzordeak garatutako jarduerak jasotzen dituzten agiriak biltzea eta zaintzea.

g) Batzordeburuak agintzen dizkion kudeaketa- eta koordinazio-egintza guztiak egitea, bai eta karguari datxezkionak ere.

***8. artikulua.***– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen jarduna.

1.– Sailarteko Batzordeak osoko bilkuretan jardungo du, eta azpibatzordeetan ere bai, gai zehatzak aztertzeko. Osoko bilkuran hautatuko dira azpibatzordeetan ariko direnak.

2.– Osoko Bilkurak, aztertu beharreko gaiak kontuan hartuta, adituak eta gizarte interesen eta interes ekonomikoen ordezkaritza-erakundeetako kideak gonbida ditzake bere bileretara, haien iritziaren berri jakin nahi duenean.

3.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, azpibatzordeek adituak eta gizarte interesen eta interes ekonomikoen ordezkaritza-erakundeetako kideak dei ditzakete euren bilkuretara, gai jakinak aztertzeko; pertsona horiek ahotsa izango dute, baina botorik ez.

4.– Batzordea, osoko bilkuran zein azpibatzordeetan ari dela, behar bezala eratutzat joko da boto-eskubidea duten kideen gehiengo osoa bertaratzen bada; batzordeburua, edo, hori ez badago, beraren ordezkoa, nahitaez egon behar da bilkuran, eta idazkaria ere bai.

5.– Batzordeak bilkuran diren boto-eskubidedun kideen gehiengo soilaren aldeko botoez hartuko ditu erabakiak. Botoetan berdinketa gertatuz gero, batzordeburuak ebatziko du bere kalitatezko botoaz.

6.– Bilkura guztien akta egingo da. Aktetan nortzuek hitz egin duten eta bilkura non eta noiz egin den zehaztu behar da; aztertu diren gai nagusiak, bozketamoduak eta bozketen emaitzak, eta erabakiak ere azaldu behar dira.

7.– Aktak idazkariak sinatuko ditu, batzordeburuaren oniritziarekin, eta bilkura berean zein hurrengoan onetsiko dira.

8.– Batzordekideek boto partikularrak jasoaraz ditzakete aktetan; boto horiek erabaki osoari buruzkoak zein zati bati buruzkoak izan daitezke.

c) Expedir certificaciones de los Acuerdos de la Comisión.

d) Proponer la adopción del documento-programa y del informe de seguimiento referidos en los apartados c) y e) del artículo 2.

e) Impulsar y realizar el seguimiento de cuantos expedientes se tramiten en la Comisión, y recabar la información sobre el estado de los que se encuentren atribuidos al Grupo Técnico Interdepartamental y a los Grupos técnicos de trabajo.

f) Archivar y custodiar los documentos en que consten las actuaciones desarrolladas por la Comisión.

g) Realizar cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por la Presidencia, sean propios del cargo o el ordenamiento jurídico vigente le atribuya.

***Artículo 8.***– Funcionamiento de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

1.– La Comisión Interdepartamental puede funcionar en Pleno y en Subcomisiones para el estudio de temas específicos, correspondiendo al Pleno el nombramiento de las personas que forman parte de cada una de las Subcomisiones.

2.– El Pleno, en función de los temas a tratar, puede invitar a participar en sus sesiones a personas expertas y a miembros de organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos, cuando considere oportuno recabar su parecer.

3.– No obstante lo señalado en el párrafo anterior, las Subcomisiones pueden también, en función de la materia, integrar dentro de ellas, con voz y sin voto, a personas expertas y a miembros de las organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos.

4.– La Comisión, tanto en su funcionamiento en Pleno como en Subcomisión, queda válidamente constituida con la asistencia de la mayoría absoluta de sus miembros con derecho a voto, entre los que debe encontrarse necesariamente la Presidenta o el Presidente, o, en caso de ausencia, quien le sustituya, y la Secretaria o Secretario.

5.– La Comisión adopta sus acuerdos por mayoría simple de las y los miembros asistentes con derecho a voto. En caso de empate decide el voto de la Presidenta o Presidente.

6.– De cada sesión se levanta acta que contendrá la indicación de las personas que hayan intervenido, así como las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de la deliberación, la forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos.

7.– Las actas son firmadas por el Secretario o Secretaria con el visto bueno de la Presidencia, y se aprobarán en la misma o en la siguiente sesión.

8.– Las personas miembros de la Comisión pueden hacer constar en acta sus votos particulares, ya sea a la totalidad del acuerdo, ya sea a cuestiones puntuales del mismo.

*9. artikulua.–* Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bilkuren araubidea.

1.– Batzordeak bi ohiko osoko bilkura egin behar ditu urtean, gutxienez.

2.– Gainera, Batzordeak osoko bilkura bereziak egin ditzake, batzordeburuak edo kideen bi herenek eskatzen dutenean.

3.– Batzordeko kideen bi herenek osoko bilkura berezia egitea nahi badute, idatziz egin behar dute eskaera. Eskaeran, aztertu nahi diren gaiak agertu behar dira eta zergatik proposatzen diren azaldu behar da. Horrelakoetan, batzordeburuak eskaera jaso eta hamabost egun igaro baino lehen deituko du bilkura berezia. Gaizerrendan, nahitaez agertu behar dira eskatutako aztergaiak, baina batzordeburuak aztergai gehiago ere sar ditzake.

*10. artikulua.–* Sailarteko Talde Teknikoa.

1.– Sailarteko Talde Teknikoaren helburua Sailarteko Batzordeko kideei laguntza eta aholkuak ematea da, euren eginkizunak ondo bete ditzaten, eta urtean gehienez hiru bilera egingo ditu. Talde horrek agintzen zaizkion gaiak aztertu behar ditu, eta haiei buruzko txostenak eta proposamenak aurkeztu.

2.– Sailarteko Talde Teknikoan ondokoak arituko dira:

a) Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak ordezkari bat edukiko du Talde Teknikoan, Batzordeko ordezkariak izendatua; ahal dela, sailean emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen eta hartaz aholkuak ematen lan egiten duten teknikarietako bat izango da. Aztertu beharreko gaiak kontuan hartuta, Batzordeak baimena eman dezake adituak eta gizarte interesen eta interes ekonomikoen ordezkaritza-erakundeetako kideak izan daitezen Sailarteko Talde Teknikoaren bilkuretan.

b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ordezkari bat edukiko du; teknikaria izan behar da, Emakundeko zuzendariak izendatuko du, eta Taldearen koordinazioan arituko da.

*11. artikulua.–* Lantalde teknikoak.

1.– Sailarteko Batzordeak lantalde teknikoak sor ditzake gai batzuk berariaz edo arlo jakin baten ikuspuntutik aztertzeko. Taldeok iraunkorrak zein aldi baterakoak izan daitezke.

2.– Lantalde tekniko bat eratzea erabakitzen denean, erabakian bertan, talde horren kideak, xedeak eta jardun-modua azaldu behar dira. Lantalde horiek agintzen zaizkien gaiak aztertu behar dituzte, eta haiei buruzko txostenak eta proposamenak aurkeztu.

*12. artikulua.–* Administrazio-kudeaketa eta aurrekontua.

*Artículo 9.–* Régimen de Sesiones de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

1.– El Pleno de la Comisión ha de celebrar, al menos, dos sesiones ordinarias al año.

2.– Además, el Pleno puede celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de la Presidencia o a petición de dos tercios de sus integrantes.

3.– La solicitud de convocatoria de sesiones extraordinarias a petición de dos tercios de las y los integrantes del Pleno se tiene que realizar por escrito y ha de contener la propuesta motivada de los asuntos a tratar. En este caso, la Presidencia convocará la reunión extraordinaria dentro de los quince días siguientes al de la solicitud y el orden del día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo la Presidenta o el Presidente adicionar otros.

*Artículo 10.–* Grupo Técnico Interdepartamental.

1.– El Grupo Técnico Interdepartamental tiene como finalidad prestar el apoyo y asesoramiento técnico necesario a las y los miembros de la Comisión Interdepartamental para el correcto desempeño de sus funciones y se reunirá cuando menos tres veces al año. Las funciones de este Grupo son las de estudio, informe y propuesta con relación a las cuestiones que se le atribuyan.

2.– El Grupo Técnico Interdepartamental está integrado por:

a) Una persona de nivel técnico en representación de cada uno de los Departamentos del Gobierno Vasco, designadas por los y las Vocales que representan a sus respectivos Departamentos en la Comisión, preferentemente entre el personal técnico encargado del impulso y asesoramiento en materia de igualdad de mujeres y hombres en su correspondiente Departamento. La Comisión puede autorizar, en función de los temas a tratar, que personas expertas y miembros de organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos asistan a las reuniones del Grupo Técnico Interdepartamental.

b) Una persona de nivel técnico en representación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, designada por el o la Directora de dicho organismo, que ejercerá las funciones de coordinación del Grupo.

*Artículo 11.–* Grupos técnicos de trabajo.

1.– La Comisión Interdepartamental puede acordar la constitución, de modo permanente o coyuntural, de Grupos técnicos de trabajo al objeto de tratar cuestiones de una manera más específica o con un carácter más sectorial.

2.– El Acuerdo por el que se constituya un Grupo técnico de trabajo determinará su composición, fines y modo de funcionamiento. Sus funciones serán las de estudio, informe y propuesta en relación con las cuestiones atribuidas.

*Artículo 12.–* Gestión administrativa y presupuesto.

1.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari, Sailarteko Talde Teknikoari eta eratzen diren lantalde teknikoei jarduteko behar duten laguntza tekniko eta administratibo guztia ematea.

2.– Emakunderen aurrekontuetan zehaztu behar dira xede horretarako ezarritako baliabideak.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Karguagatik berez Batzordeko kide ez diren batzordekideak eta Sailarteko Talde Teknikoko kideen izendapena.

1.– Dekretu hau indarrean jartzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean izendatu behar dira karguagatik berez Batzordeko kide ez diren batzordekideak, hain zuzen ere, dekretu honetako 3. artikuluko c) idatz-zatian adierazitakoak, bai eta haien ordezkoak ere. Ordezkoak sailburuorde mailakoak izan behar dira, edo, hori ezean, zuzendari mailakoak. Batzordean sailak ordezkatzen dituzten kideek izendatuko dituzte, hamabost eguneko epean, Sailarteko Talde Teknikoko kideak eta haien ordezkoak.

2.– Aurreko xedapenean aurreikusitako epean, Lehendakaritzako idazkari nagusiak izendatuko du bere ordezkoa, bera kanpoan edo gaixorik edota kargua bete gabe dagoenerako, eta ordezkoak haren mailakoa izan beharko du, edo, gutxienez, zuzendari mailakoa.

Epe berean izendatuko ditu Sailarteko Talde Teknikoan Lehendakaritza ordezkatuko duen teknikaria eta haren ordezkoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ekainaren 15eko 251/1999 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumezkoentzako Ekintza Positiboko Planaren exekuzioa koordinatzeko Sailarteko Batzordea arautzeko dena, indargabetu egin da.

AZKEN XEDAPENA.– Indarraldia.

Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko abenduaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

1.– Corresponde a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer prestar la asistencia técnica y administrativa necesaria para el funcionamiento de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como del Grupo Técnico Interdepartamental y de los Grupos técnicos de trabajo que se constituyan en su seno.

2.– Se han de consignar en los presupuestos del Instituto los recursos necesarios a tal fin.

DISPOSICION ADICIONAL.– Designación de personas Vocales no natas y de las personas integrantes del Grupo Técnico Interdepartamental.

1.– En el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la entrada en vigor del presente Decreto, deberá procederse a la designación de las y los Vocales no natos a que se refiere el artículo 3 c) del presente Decreto, así como a sus suplentes. Las y los suplentes han de tener rango de viceconsejero o viceconsejera o, en su defecto, director o directora. Las personas integrantes del Grupo Técnico Interdepartamental y sus suplentes, deberán ser designadas en el plazo de quince días, por los o las Vocales que representan a sus respectivos Departamentos en la Comisión.

2.– La o el Secretario General de la Presidencia designará en el plazo previsto en la Disposición anterior a la persona que le sustituirá en caso de ausencia, vacante o enfermedad, quien tendrá su mismo rango o, al menos, rango de directora o director.

En el mismo plazo habrá de designar a la persona técnica que represente a Lehendakaritza en el Grupo Técnico Interdepartamental y a su suplente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 251/1999, de 15 de junio, de regulación de la Comisión Interdepartamental para la coordinación de la ejecución del Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor del Decreto.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.